

“Segurtasun eza handitzen ari da Oñatin, EH Bilduren udal gobernua ezer egin gabe dagoen bitartean”

- *EAJ-PNVk Udal Gobernuari eskatu dio berehala jarduteko, neurri zehatzak zehazteko eta Ertzaintzarekiko koordinazioa hobetzeko. Gainera, zaintza-kamerek behar bezala funtziona dezatela eta orain ez dauden ordutegietan berriz ere Udaltzaingoaren presentzia egon dadila eskatu du.*

Azken asteetan, beldurra eta kezka nabarmen handitu dira Oñatiko kaleetan. Lapurretak, lapurreta saiakerak eta egoera susmagarriak zurrumurru isolatuak izateari utzi diote, eta gero eta bizilagun gehiagok lehen pertsonan bizi dituzten esperientziak bihurtu dira. Hainbat kaletan ibilgailu ezezagunak egoteak, hainbat ordutan portaera arraroak izateak eta poliziarri alerta-dei ugari egiteak herritarrak kezkatzen dituen errealitatea islatzen dute.

Egoera horren aurrean, Oñatiko EAJ-PNVren ustez, Udalaren erantzuna “ez dago behar den mailan. Ingurune segurua bermatzeko betebeharra Udal Gobernuari dagokio, eta, hedaduraz, EH Bilduri, gehiengo osoarekin gobernatzen baitu. Hala ere, erreakzio eta neurri argi faltak babesgabetasun sentazio gero eta handiagoa sortzen ari da”.

EAJ-PNVk azpimarratu du arazoa politikoa dela. “Aspaldidanik, EH Bilduk jarrera anbigua du, argi eta garbi kontrakoa ez bada ere, Ertzaintzarekiko. Jarrera horren ondorioz, gobernatzen duen udalerrietan ez dago polizia-eredu zehatzik. Ertzaintzari helarazitako mesfidantza bizikidetzan laguntzen ez duten mezu publikoetan eta hartzen ez diren erabakietan ere islatu da, lankidetzan estuan aritu beharko luketen erakundeen arteko koordinazioa zailduz”.

Talde jeltzalearen iritziz, “segurtasun-kidegoekiko konfiantzaren kontakizun argirik gabe, eraginkortasuna mugatu egiten da. Udal Gobernuaren definizio falta horrek zuzenean dakar herritarrentzako babes txikiagoa”.

Oñatiko EAJ-PNVk Udalaren aldetik informazio eta gardentasun falta ere salatu du. Bizilagunen zalantzek ez dute erantzunik jasotzen, eta herritarrek helarazitako eskaerei — poliziaren presentzia handiagoa, erakundeen arteko koordinazio hobea eta informazioaren argitasuna — ez zaie erantzuten oraindik. Hori guztia are larriagoa da kontuan hartzen bada zaintza-kamerak ez daudela erabilgarri eta gauean ez dagoela udaltzaingoaren zerbitzurik.

Jeltzaleen udal-taldearentzat, “ez dira aparteko neurriak eskatzen ari, oinarrizko bermeak baizik: segurtasunez eta lasaitasunez bizi ahal izatea”.

EAJ-PNVk ohartarazi du EH Bilduk “eredu propio” bati buruz hitz egiten jarrai dezakeela, baina ezin dela onartu erabakirik hartu gabe jarraitzea. “Erabaki falta ere erabaki bat da, eta une honetan deskoordinazioa, mesfidantza eta segurtasun falta gero eta handiagoa eragiten ari da herritarren artean. Eraginkortasunik eza horren ondorioak jasaten ari direnak Oñatiko herritarrak dira, eta kudeaketa hobea merezi dute”.

Talde jeltzaleak premiaz jokatzeko, neurri argiak hartzeko eta Ertzaintzarekin, Udaltzaingoarekin eta gainerako segurtasun-kidegoekin koordinazio eraginkorra berrezartzeko eskatu dio Udal Gobernuari. Era berean, zaintza-sistemen funtzionamendua bermatzeko eta gaur egun ez dagoen ordutegietan Udaltzaingoaren presentzia berreskuratzeko eskatzen du.